

HAURTZARO MENDI TALDEA

2025-2026
IKASTURTEA



Abenduak 14

HAURTZARO MENDI TALDEAREN irteera Oiartzun ezagutzen:

ARRASKULARRE

- **Eguna:** abenduak 14, igandea.
- **Irteera:** 09:00etan ikastolako parkingetik.
- **Itzulera:** 13:00ak aldera.
- **Ibilbidea (7 Km):** Oraingoan, esku-eskura daukagun mendia izanda ere, inoiz gutxitan igotzen dugun horietako bat bisitatuko dugu. Ikastolako aparkalekutik Tronpeoko maldan behera Iturriotza jaitsi eta Altzibar aldera joko dugu. Aduriz pasa bezala eskubitara joko dugu Otsakane bidean gora, eta zementuzko malda gogor bat igo ondoren, berriro ere beherantz hartuko dugu Karrikara jaisteko. Arraskuko errotatik gora doan Gainzabalko bidea hartu eta Zabale baserrira iritsi aurretik ezkerretara joko dugu Arraskularrera igotzeko. Bide beretik jaitsi eta Zabale ondorengo bidegurutzean eskubitara joko dugu Aristiburuko bidearekin bat egin arte eta handik beherantzko bidea hartuko dugu Ergoiena jaisteko. Uztapide plazatik barrena joan eta bidegorriarekin bat egingo dugu ikastolara itzultzeko.



Izen ematea: <https://forms.gle/iizkSYUfVQJUZoa28>

Epea: abenduak 11, osteguna, 17:00ak arte.

OHARRAK:

1. LH3tik gorako ikasleek izango dute irteeretara etortzeko aukera.
2. Eraman beharrekoak: arropa eta oinetako egokiak, zira, hamaiketakoa eta ura.
3. Eguraldiarengatik aldaketarik egin beharko balitz, Mendi Taldeak bere esku hartuko luke eginkizuna.
4. Azken orduko ezusteetarako telefonoak: Mikel 697293095 eta Lorena 679358740.
5. Mendi taldearen urteko irteeren informazioa eta irteeren argazkiak: www.hurtzaroikastola.eus



Haurtzaro Ikastolako Mendi Taldea